

## MITOLOGI ETA ASTRONOMI IZENEN INGURUAN

*Xabier Kintana*

Gure planetako herrialde, garai eta kultura ezberdinetan asmatuiko fantasiako izakiek, giza irudimenak emandako existentziaz landa, bestelako bizitza izan dute gizartean. Alde batetik, horien inguruan bilbatuiko ipuinak, sineskerak eta pasadizoak mendebaldeko kulturari ongi txertaturik daude, eta pinturan, eskulturari eta musikan ere sormen-iturri estimagarriak izan dira.

Are gehiago, mitologiako izen horiek kosmoseko gorputzak (konstelazioak, izarrak, planetak, sateliteak, asteroideak...) banan banan izendatzeko erabili izan dira oraintsu arte, gure ortzea behialako jainko, jainkosa eta heroiez populatu arte. Gaur egun, aldiz, ohitura hori aldatua da, eta zifrak eta letrak erabiltzen dituzte oraingo astronomoek horretarako, izarrei, izena barik, nortasun-agiri zifratu edo pasaporte-zenbaki bana jarriz. Askok, segur naiz, lehenagoko sistema nahiago.

Edozein kasutan, mitologi izenak, egon, hor daude eta, horregatik, fikziozko izaki horien izenak euskaraz adierazteko eraz arduratzea ez da, norbaiti irudi lekiokenez, kontu hutsala, gure euskal gizartea kultura unibertsalean bide seguririk gidatzeko premia egiatua baizik.

Euskaraz arlo hau gutxi jorratua dugu. Izan da, bai, gure literaturan mitologiari, zeharka bederen, aipamenen bat egiten dion obrarik, baina ez behar bezain sakonki inoiz aztertu gabe. Eta astronomiaz beste horrenbeste esan genezake, nahiz eta gure artean, eta Euskaltzaindian bertan astronomiazalaren bat egon, Saturnoren argazki ederren egile.

Halere, herri-usarioan planeta, izar edo konstelazioei buruzko zenbait izen gorde da. Nagusiak alde batera utzirik (Eguzkia, Ilargia, Lurra...) gainerakoek eguneroko mintzaira arruntaren kutsu nabariegia dute, astronomi metahizkuntza osatzeko ahalbidehandirik gabe (*Donejakue Bidea, Itohoiak, Artizarra...*), inguruko erdaretan gertatzen denez (*Camino de Santiago, el lucero del alba...*).

Zodiakoari doakionez, dena den, tradizio luzeagoa izan dugu, horko izenak Joanes Leizarragak azaldu baitzizkigun lehen aldiz 1571. urtean.

Edonola ere, era honetako izenotan aski bateratsu jokaten dute kultur hizkuntza guztiek, eta horregatik ez da hain zaila izan horiek euskarara moldatzea. Beren erabilera-eremu murriztu eta erabat berezituak kontutan izanda, bestalde, ez dugu uste izan beren jatorrizko arrotasunetik guztiz biluztu behar genituela, eta kasu gehienetan latinez edo eta grezierazko transliterazioaz eskaintzen ditugu. Inoiz baina zientzi izenaren ondoan izen arruntak ere eman ditugu, horiek ez

baitira beti erabat sinonimoak izaten, textuinguruen arabera bata edo bestea erabili behar izanez: *Ursa Maior/Hartz Nagusia/Bostizarrak, Itohoinak; Via Lactea/Esne Bidea/Donejakue Bidea*.

Horrela, astronomo profesional edo astronauta baten ahoan (filme batean adibidez) euskaraz *Itohoinak* edo *Donejakue Bidea* entzutea desegokia litzatekeen bezala, ez lihoakioke ongi Pirinioetako artzain bati, semeari zeruko izarrak azaltzean kasu, hango izarrak *Ursa Maior* dela esatea edo eta Erdi Aroko pelegrinek gauean zerura begira *Esne-Bidea* aurkitu nahi zutela kontatzea. Hizkuntzaren mailok bereizteko, hortaz, hiztunak, idazleak eta itzultzaileak halako kulturaz, zentzuaz eta zuhurtziaz jokatu behar du.

Kasu aipagarri bat azpimarratzekotan, gure eguzki-sistemako laugarren planetarena litzateke, alegia, gerraren jainkoaren izenaz bataiatuarena. Horren jatorrizko izena latinez *Mars* da, eta horrela deritzo frantsesez. Espainolez, ordea, horren akusatibotik harturiko aldakia hobetsi dute (*Martem* > *Marte*). Inguruko erdaretan oinarrituz gero, beraz, euskaldunok batasunik ez.

Aspaldiko hogei urteotan, ordea, *Mars/Marte* bikote horren lekuan, Martitz hitza bultzatu izan da gure literaturan. Berau Bizkaian "astearte" esateko erabiltzen den izenetik aterea da: *Martitzen*-etik, hain zuzen. Mitxelenak azaldu zenez, berba horren jatorria \**Martitz-eguna* < \**Martitz-euna* < \**Martitz-ena* zen, lehen osagaia erromatar jainko horren genitibotik (*Martis*) heldua izanda, ohiko euskal eboluzio fonetikoaz aldatua (cfr. *corpus* < *gorputz*, *fortis* < *bortiz*). Gure ustez, gure hizkuntz ondarean dugun eta, *astearte* hitzaren erabateko nagusigoaz, galtzar dagoen berba hori egokia zen hutsune hori betetzeko.

Kontsiderazio hauek guztiok eginda, prestatu dugu, beraz, mitologi eta astronomi izendegi hau, exhaustiboa izateko asmorik gabe, arlo horretako premiarik behinenak ase eta nolabaiteko ereduak erakusteko balio dezakeena. Zerrendan agertzen diren izen asko ez dira gure batzordean xeheki eta behar bezala aztertu oraindik, eta hemen, eskuartean ditugun zereginen erakusgaitzat baizik ez dira eskaintzen; beraz, arlo horretan interesa duzuenon oharrak eta iradokizunak ere esker onez hartuko genituzke. Dakuskezuenez, mitologi izendegi honek, oro har, mitologia greko-latindarra biltzen du, baina ez ditugu ahantzi nahi izan, lekuko gisa, beste eremu geografiko eta kulturaletako pertsonaiak ere. Hori dela eta, sonatuenetako batzuk behitzat tartekatu dira.

Xabier Mendigurenek ihardunaldi hauen hasieran oso ongi azaldu digunez, finkatu beharreko izenen artean arte- eta literatur obren izenburuak ditugu, pintatzaile, eskultore, idazle eta zineasta famatuena lanak euskaraz aipatzeko orduan guztiz premiazkok. Hortaz, gure azpibatzerdeak, besteak beste, ondo gogoan ditu Da Vinci-ren *Azken Afarria*, Botticelli-ren *Hiru Graziak* edo *Venusen jaiotza*, Bosch-en *Delizien lorategia*, Rodin-en *Pentsalaria* (ala *Pentsatzailea*?) Daliren *Oroimenaren irauteaz*, Shakespeareren *Uda-gau bateko ametsa*, Dostoiievskiren *Karamazov anaiak*, Proust-en *Denbora galduaren bila*, García Marquez-en *Ehun urtetako bakartasuna*, Vivaldiren *Lau urtarokak*, Stravinsky-ren *Suzko txoria* eta Udaberriaren *sagaratzea* (ala *kontsakrazioa*?), *Haizeak eramana*, *Gehiegi zekien gizona*, *Egunik luzeena*, *Sutan al dago Paris?*, *Izarretako Gerra*, *Otsoekin dantzari*, *Schindler-en zerrenda* etabar luzea euskaraz ere nola edo hala adierazi beharko

direla, eta hor ere ereduren batzuk eman beharko dituela, entziklopedisten eta itzultzaileen mesederako.

Hondar gabeko itsaso horretan murgildu aitzin baina, zilegi bekit horien eta mitologiaren arteko arloska baten barna sartzea: haurren ipuinen izenen hesitxo berezian, hain zuzen.

Edozein herri normaletan honek lotsa sorteraziko lukeen arren, gurean, zorritzar handiz, premiazkoa dugu oraino honelako xehetasunez ere arduratu beharra. Izan ere, euskararen berreskurapenean irakaskuntzak duen garrantzia kontutan izanda, ezin dezakegu ahantz gure anitz eta anitz irakurleren adina, eta haur-ipuinak ditugula, hain zuzen, gehienik publikatzen diren argitarapenak. Horietako gehienak, bestalde, itzulpenak dira. Gainera, editore askok gure hizkuntza ez dakitenez gero, itzultze-lan hori euskara maila exkaxa bezain eskrupulu gutxi duten pertsona kontrolagaitzen eskuetan uzten dute maiz. Ondorioa hortxe dago: *Pulgazito* eta *Zenizienta* moduko "euskal" izenburuak daramatzaten liburuskak; eta behin bide horretan abiatuz gero, ez gintuzke harritu behar alde honetan *Petipuzeta* eta *Zendrillon* izeneko ipuinak agertuko balitzaizkigu.

Horri erremedioa jartzeko, eta errudunek hori ez zekitela gehiago esan ez dezaten bederen, honekin batera haur-ipuina klasiko ezagunen izenburuak aurkeztu ditugu, orain arteko tradizioan oinarrituak.

Eta besterik ez. Lehen esan bezala, hauek guztiok proposamenak dituzue, azpibatzerdekook behin eta berriro eztabaidatu ondoan mamituak. Zuen guztion eritzi, kritika, emendio eta zuzenketak jaso ondoren, guk horiek berrikusi, bere kasuan aldatu eta Euskaltzaindiari aurkeztuko dizkiogu, berak epai ditzan. Eskerrik asko.

## ASTRONOMI IZENAK

Eguzki-sistema

### Planetak

**Merkurio**

**Venus/Artizarra**

**Lurra**

satelitea:

Ilargia

**Martitz**

sateliteak

Deimos

Fobos

**Jupiter**

sateliteak:

Adrastea

Amalthea

Metis  
Elara  
Europa  
Fasifae  
Ganymedes  
Leda  
Ananke  
Himalia  
Io  
Kallisto  
Karme  
Lysithea  
Pan  
Sinope

**Saturno**

Sateliteak:

Enzelade  
Dione  
Febe  
Hyperion  
Jano  
Japeto  
Mimas  
Rhea  
Tethys  
Titan  
Kalypso  
Atlas  
Telesto

**Urano**

sateliteak:

Ariel  
Miranda  
Oberon  
Umbriel  
Titania

**Neptuno**

sateliteak:

Nereida  
Triton

**Pluton**

satelitea: Karonte

**Asteroideak**

Astrea  
Hebe  
Iris  
Juno  
Flora

Higea  
Metis  
Palas  
Vesta  
Zeres

**Konstelazio nagusiak**

ANDROMEDA/Hiru ahizpak  
AURIGA  
AQUILA  
BOOTES/Itzaina  
CAELUM  
CAMELOPARDALIS  
CANIS MAIOR  
CANIS MINOR  
CARINA  
CASSIOPEIA  
CEPHEUS  
CENTAURUS  
CEPHEUS  
CETUS  
COLUMBA  
COMA BERENICES  
CORONA AUSTRALIS  
CORONA BOREALIS  
CORVUS  
CRATER  
CRUX/Hegoaldeko Gurutzea  
CYGNUS  
DELPHINUS  
DRACO  
EQUULEUS  
ERIDANUS  
FORNAX  
GRUS  
HYDRUS  
HERCULES  
INDUS  
LACERTA  
LEPUS  
LUPUS  
LYNX  
LYRA  
MICROSCOPIUM  
OCTANS  
OPHIUCHUS  
ORION (Orionen gerrikoa)/Oilaloka bere txitoekin  
PAVO

PEGASUS  
 PERSEUS  
 PHOENIX  
 PISCIS AUSTRINUS  
 PLEIADES/PLEIADEAK  
 RETICULUM  
 SAGGITA  
 SCUTUM  
 SERPENS  
 TRIANGULUM AUSTRAL  
 TUCANA  
 URSA MAIOR/Hartz Nagusia/Itohoia/Bostizarrak  
 URSA MINOR/Hartz Txikia  
 VELA

**Zenbait izar nagusi**

Aldebaran  
 Algol  
 Alpha Centauri  
 Altair  
 Antares  
 Arcturus Vega  
 Beta Centauri  
 Betelgeuse  
 Ipar Izarra/Polaris  
 Kastor eta Pollux  
 Markab  
 Procyon  
 Rigel  
 Sirius  
 Spica

**Zodiakoko konstelazioak**

Aries  
 Taurus  
 Gemines  
 Cancer  
 Leo  
 Virgo  
 Libra  
 Scorpius  
 Saggitarius  
 Piscis  
 Capricornius  
 Aquarius

**Kometak**

Halley kometa  
 Kohoutek kometa  
 Bennett kometa  
 Shoemaker-Levy 9 kometa

**Nebulosak**

Esne Bidea/Donejakue Bidea/Via Lactea  
 Magalhaes nebulosa  
 Andromeda galaxia  
 Oort-en hodeia

**MITOLOGI IZENAK**

Adonis	Anubis	Atlas
Afrodita	Apollo	Baal
Ahriman	Ares	Bacchus
Ahramazda	Artemisa	Belzebul
Akhilleo/Akhilles	Asklepio	Cupidus
Ammon	Astarte	Demeter
Andromeda	Astrea	Diana

Dionysos	Klio	Saturno
Esfingea	Leviatan	Satyroak
Eskulapio	Kronos	Sirenak
Eros	Lamia	Sisyfo
Faunoak	Manitu	Sylfideak
Febo	Mari	Stygiar Lakua
Fenix	Marduk	Tartaro
Flora	Martitz	Terpsikhora
Fortuna	Merkurio	Thalia
Furiak	Minerva	Tethys
Gaia/Gea	Naiadak	Thor
Ganymedes	Narkisso/Narzisso	Thot
Gorgonak	Neptuno	Titan
Hades	Nereidak	Tlalok
Helena	Nereo	Tutatis
Hera	Odin	Tyfon
Herakles	Odysseo	Ulysses
Herkules	Olympto	Urzi/Urtzi
Hermes	Ondinak	Urano
Hydra	Orfeo	Venus
Io	Orko	Vulcanus, Vulcano
Iris	Osiris	Walhalla
Isis	Pallas Athenea	Walkiria
Ixtar	Parkak	Varuna
Jano	Parnaso	Vesta
Japeto	Pegaso	Vixnu
Jarovit	Perseo	Wotan
Jason	Pluton	Xiva
Jupiter	Polyfemo	Zentauroak
Kali	Poseidon	Zerbero
Kalypso	Psykhis	Zeres
Karonte	Ptah	Zeus
Ketzalkoatl	Ra	Zibeles
Khimera	Rhea	Zyklopeak
Kirke		